

1- Taldean azalpenen ematea



- ◆ Intxaur-hauskailu bat hauta ezazue taldeka.
- ◆ Objektu horren funtzionamenduaren esplikatzeko behar diren datu garrantzitsuenak idatz itzazue entsegu kaieran.
 - ➔ Zertarako da objektu hau? Zerez (zurez, metalez...) egina da?
 - ➔ Nola funtzionatzen du?
 - ➔ Haren kalitate eta akatsak asma itzazue: *biziki erabilerraza da; pisua da, arina da, ttipia da, aise biltzen (altxatzen) da, tokia hartzen du; indarra behar da erabiltzeko, ez da indarrik behar...*



- ◆ Solasaldia antola ezazue.
 - ➔ Orainaldian mintza zaitezte.
 - ➔ Lehenik objektua aurkez ezazue (zer da?).
 - ➔ Ondoren haren erabilera aipa (zertarako da?).
 - ➔ Ondotik haren funtzionamendua (nola funtzionatzen du?) esplika: *eskuz hartzen da, hor zapatzen da, eskuinaldera itzulikatzen da, horrekin jotzen da...*
 - ➔ Eta azkenean haren kalitateak eta akatsak aipa: *praktikoa da, ez da erabilerraza...delako....*
 - ➔ Hitz zehatzak erabil (adjektiboak, adberbioak...): *gainean, azpian, ezker, eskuin,...*
- ◆ Beste taldeei aurkez iezaiezue ozenki mintzatuz eta ontsa ahoskatuz.

Nola esplikatu ahozkoan

- ◆ Objektu baten funtzionamenduaren edo hartu behar den bide baten esplikatzeko, lehenik ontsa irudika ezazu edo ontsa begiraiozu.
- ◆ Informazioak idatz itzazu zehazki entsegu-kaieran;
- ◆ Orainaldian mintza zaitez.
- ◆ Mintza zaitez ozenki eta ontsa ahoskatuz.
- ◆ Publikoaren interesa pizteko aurkezpena objektua eskukatuz osa ezazu.

2- Eguneroko tresna batez azalpenen ematea

◆ Objektu hauen funtzionamendua azal ezazu:

barazkien zuritzekoa



irabiagailua



entsalada xukagailua



3- Ikasgelako objektu baten aurkeztea

arbeltxoa



zorrozkailua



idazluma



goma



◆ Ikasle bat zotzetan aterako da.

◆ Objektu bat hautatuko du, eta haren funtzionamendua azaldu beharko du izendatu gabe.

◆ Bestek asmatu beharko dute zer den?

Hitz-kutxa : *metalezkoa da, zurezkoa, plastikozkoa, zorrotza, leuna, klerekin erabiltzen da, badu tapa bat, eraztunak ikusten dira, lama bat badu...*

4- Altxorren aurkitzeko bidearen azaltzea

Hitz-kutxa bidearen zehazteko: *bidea, bidexka, xendra, ezkerrera, eskuinera, goiti, beheiti, erdira, bazterrean,artetik,... inguratu, itzuli, zeharkatu, gainditu, pasatu, iragan, saihestu,...*



5- Zure ikastolarako bidearen azaltzea

◆ Zure etxetik eskolarainoko bidea esplikatu iezaiezu ikaskideei, zure herriko planoaz lagundurik.